

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Hotza egitean, hankak normalean galtza batzuekin bakarrik babesten ditugu eta hauek oso finak izaten dira. Gainera, neska askok leotardoak janzten dituzte galtzen azpitik eta ez dira oso erosoak. Horretarako, erosoak diren eta berotzen duten galtza batzuk egingo ditugu, hotza eta honen ondorioz sortutako gaixotasunak (gripea, katarroa, sukarra, ...) ekiditeko.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

2. eskuko galtza bakero arrunt batzuk erabiliz, hauen barnean artilezko bigarren kapa bat josiko diogu josteko makinarekin eta botoi beltzak itsatsiz. Hau arroparen merkaturako berrikuntza bat da eta ondorengo abantailak ditu.

Erosoak izateaz gain, itxura eta tamaina beste galtzen berdina izango dute, beraz, estetikoki betiko galtza bakeroak bezalakoak izango dira, baina berotasun handiagoa emango dutenak. Horrez gain, prezioa merkea izango da jendearentzat eskuragarria izateko eta eskuz eginak izango dira bigarren eskuko materialak erabiliz. Izan ere, giza esplotazioaren aurkako jarrera sustatu nahi dugunez, betiere ingurunea errespetatuz, bakeroak bigarren eskukoak izango dira eta, horrela, herrietako merkatu txikiei lagundu diezaiokegu.

